

DOMEKEA

2002ko apirilaren 7a




GETXO. Bizkaian pausoz pauso

Itsasbazarren edertasuna miresteke osteratxo samurra egin leiteke Getxon

GURE BERBETEA

Mikel Artetxe:
«Kanpoko txirrindulariek ondo dakie zer dan euskerea»



BILBO. Berdeguneak

Urte amaierarako hasiko dira Bilboko berdeguneak bikoiztu behar dituen parkeko obrak

Larreagaburu parkea —Mina del Morro deritxon inguruan— egiteko behar diran 15 milioi euroak Udalak eta Jauralaritzak ipiniko ditue

Bilbon, laster, berdeguneak ia bikoiztu egingo dira eta. Urtea amaitu aurretik indusmakina sartuko dira Larreagaburu (Mina del Morro deitzen daben inguru horretan), eta uriburuak izango dauen parkerik handiena egiten hasiko dira. Udalak eta Jauralaritzak erdibana ordainduko ditue proiektuak kostauko dituen 15 milioi euroak. Gobernutik bertatik *Bizkaia*-ri aitortu deusienez, Udalak egi-

tasmoa Javier Madrazo Etxebizitza eta Gizarte gaietako sailburuagaz berbatu dauen arren, ez dau oraindino azken erabagia hartu. Udalak ez dau zalan-tzan ipinten proiektuaren preminea. Azkunak berak aurreratu zituan, urte hasieran, obreak nondik norakoak: Parkea gune bik osatuko dabe, Miraflores bideko biribilguneak bananduta.

45

BILBO. Peñen I. Eguna

Athleticzaleen egun handia

Ez dakigu argazkian dagozan athleticzaleek horrelako umoreagaz amaituko eben eguna, orria hau egin zanean Athletic-Bartzelona partidua amaitu barik egoalako. Hori bai, egun guztian zehar zaleen arten giro onik ez zala falta izan bildurrik barik esan geinke. Izan be, Athleticen Peñen I. Eguna ospatu zan atzo Bilboko Erakustazokan, bertan egozaren talde kutunaren etxearen ondoan. Antolatzaileek Aste Nagusiko egun bat hartu eben eredu moduan, eta lortu eben. Txosnak, buruhandiak eta erraldoiak, dantzariak, txistulariak, dultzaineroak... Ez zan ezer falta izan. Bazkaria be antolatu eben, paellak eta putxeretan egindako indabak. Janari gozoaz gozatzeraz joan ziran 2.300 peñista inguru. Athleticen egoera txarraz eztabaidak eta barriketaldiak ugariak izan ziran. Halandabe, guztiek pentsetan eben Athleticen Bartzelonari irabazi egin-go eutsola.



JON HERNÁEZ / ARGAZKI PRESS

3